



MEMORIA

Udal Kultur Etxearen 2021eko ekitaldirako aurrekontua Basauriko Udaleko Ogasun, Ondare, Ekonomia Sustapen eta Merkataritza Sailak ezarritako jarraibideen arabera egin da.

Udal Kultur Etxearen 2021eko ekitaldirako aurrekontua, guztira, 3.055.270,51 €-koa da, hau da, 255.998,15 €-ko murrizketa 2020ko ekitaldiko aurrekontuarekiko (-% 7,73).

Aurrekontuaren egitura Basauriko Udalak Basauriko Kultur Etxeari egiten dion ekarpenaren arabera da. Ekarpen hori diru-sarrera guztien % 86,32 izango da 2021eko ekitaldian.

Hauek dira aurrekontuaren ezaugarri nagusiak eta 2020ko ekitaldiko aurrekontuarekiko aldaketa nabarmenenak:

DIRU-SARRERAK

255.998,15 €-ko murrizketa gertatu da 2020ko ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuta. Horren arrazoa da Basauriko Udalaren ekarpena 138.810,32 euro murriztu dela, eta jarduerak berak sortutako diru-sarrerak 125.000,00 euro murriztu direla. Horri gehitu behar zaio Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntzetatik jasotzea espero den zenbatekoaren murrizketa.

Diru-sarreraren aurreikuspen hori Covid 19ren pandemiak gure jarduerak sortutako diru-sarreretan duen eragin ekonomikoari zor zaio. Kontuan izan behar da 2021eko ekitaldian jarduera jakin batzuk ezin izango direla egin, eta beste batzuk neurri txikiagoan eta edukiera txikiagoarekin egingo direla.

Eusko Jaurlaritzatik udal-liburutegietarako jasotako diru-laguntzen zenbatekoak handitzea baino ez da aurreikusten.

GASTUAK

Aurrekontuaren I. kapituluak % 2,38ko murrizketa du, lan-kontratuko langile finkoak, bizi- eta ezintasun-asegurua eta elkarkidetzak ordaintzeko zenbatekoak murriztean.

II. kapituluan, diru-sarreraren murrizketak gastu-partiden zenbatekoa murriztera behartzen du, batez ere jarduera soziokulturalekin zerikusia dutenak, bai Social Antzokian (zinema eta ikuskizunak), bai kultur etxeetan eta gizarte-etxeetan egindakoak.

II. kapituluak 2020. ekitaldiko aurrekontuarekiko duen murrizketaren zenbatekoa, guztira, 206.257,89 eurokoa da (-% 18,40).

VI. kapituluan 2020ko aurrekontuko zenbateko berari eusten zaio.



MEMORIA

El presupuesto de la Casa Municipal de Cultura para el ejercicio 2021 se ha realizado siguiendo las directrices establecidas por el Área de Hacienda, Patrimonio, Promoción Económica y Comercio del Ayuntamiento de Basauri.

El importe total del presupuesto de la Casa Municipal de Cultura para el ejercicio 2021 asciende a 3.055.270,51 € lo que supone una reducción de 255.998,15 € respecto al presupuesto del ejercicio 2020 (-7,73%).

La estructura del presupuesto está determinada por la aportación que el Ayuntamiento de Basauri realiza a la Casa Municipal de Cultura de Basauri. Dicha aportación supondrá en el ejercicio 2021 el 86,32% del total de los ingresos.

Las características principales del presupuesto así como los cambios más reseñables respecto al presupuesto del ejercicio 2020 son los siguientes:

INGRESOS

Se produce una reducción de 255.998,15 € respecto al presupuesto del ejercicio 2020. Esto se debe a la reducción de la aportación del Ayuntamiento de Basauri en 138.810,32 € así como en la reducción de los ingresos generados por la propia actividad cifrada en 125.000,00 €. A ello se suma una reducción del importe que se espera recibir de las subvenciones otorgadas por la Diputación Foral de Bizkaia.

Esta previsión de ingresos se debe al impacto económico que la pandemia de Covid 19 tiene sobre los ingresos generados por nuestra actividad. Hay que tener en cuenta que en el ejercicio 2021 determinadas actividades no podrán celebrarse y otras se realizarán en menor medida y con aforos más reducidos.

Únicamente se prevé un aumento de ingresos en los importes de las subvenciones recibidas desde el Gobierno Vasco para las bibliotecas municipales.

GASTOS

El Capítulo I del presupuesto tiene una reducción del 2,38% al poder reducirse importes destinados a sustituciones de personal laboral fijo, seguro de vida e incapacidad y Elkarkidetza.

En el Capítulo II la disminución de ingresos obliga a reducir el importe de partidas de gasto, fundamentalmente las que tienen que ver con actividades socioculturales, ya sean éstas realizadas en el Social Antzokia (cine y espectáculos) como en las distintas casas de cultura y centros cívicos.

El importe total de la reducción del Capítulo II respecto al presupuesto del ejercicio 202 es de 206.257,89 € (-18,40%)

En el Capítulo VI se mantiene el mismo importe que en el presupuesto 2020.